

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

336

Azaroak 1, 2018

XV. Beldur Pasabidea antolatu du Santigoko Deabruak elkarteak

- 2 Irun Atzo Irun Gaur
- 3 Hartu Hitzaz Irun
- 4-5 Aurrekontu parte-hartzaileak
- 6 Euskaraldia
- 7 Beldur Pasabidea
- 8 Kirolak: San Marcial Kirol Kluba
- 9 Kirolak: Alazne Cienfuegos korrikalaria
- 10 Kolaborazioak
- 11 Haurren leihoa / Denborapasak
- 12 Bertsoak / Gazteen lanak
- 13 Beti Gazte: Miriam Loidi
- 14 Gazte Informazioa
- 15 Agenda

Argazkia: Dark Red Team

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA

caser
residencial

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

Javier Tolosa Etxepare

Aktorea. Irunen jaio zen 1971 urtean. Euskadiko Ikus-entzunezko eta Antzerkigintza Ikasketa Zentroan ikasi zuen eta arte dramatikoko ikasketak egin zituen bertan. Horren ostean, Madrilen ganbera-teatro ikastaro bat egin zuen. Bere formazioa Madrilen amaitu zuen, Zinematografia Ikerketa Nukleoan eta, bi urteetan zehar, interpretazio zinematografikoa ikasi zuen bertan.

Antzerkiaren munduan 1993 urtean abiatu zuen bere ibilbide profesionala. Hortaz gain, laburmetraietan eta telebista saio ezagunetan parte hartu du, hala nola, "El Super" (1999), "Hospital Central", "Los hombres de Paco", "Amar en tiempos revueltos", "La que se avecina" eta beste hainbat telesailetan. Zinearen barnean honako pelikuletan aritu da aktore lanetan: "Carretera y manta", "El lobo", "Los Borgia", "Una sonrisa al viento", "Princesas, Noviembre" eta "Como agua para chocolate", beste batzuen artean.



Iturria: Agustin Morate.
Irun y sus gentes.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Ainara Berges

Publizitatea:

Amaia Terrazas
(amaia@irunero.eus)
Ion Otxoa
(ion@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Azaroaren 18ko galdeketako hautestontziei harrera beroa egin zieten irundarrek

Azaroaren 18an Irunen egingo den herri-galdeketa erabiliko diren hautestontziei harrera beroa egin zieten hiritarrek urriaren 27an. Hartu Hitza Irun mugimenduaren barneko auzo-mugimenduak Irungo kale nagusiak zeharkatu zituzten hiru martxa ezberdinetan banaturik. Martxak Txanaleta plazan elkartu ziren trenbidetik etorri ziren hautestontziei harrera egiteko.

Irungo Herri Galdeketa ospatu ahal izateko beharrezkoak diren hautestontziei harrera egitea izan zen urriko hilabeteko azken larunbatean antolatutako ekitaldiaren helburua. Hortaz gain, Irungo Hartu Hitza mugimenduko kidea den Xabier Martinez de Antoñanak adierazi duenez, "auzoetan bozketa-lekuak antolatzeko sortutako lan-taldeen inplikazio handia eskertu nahiko genuke". Hiriko auzo ezberdinetako 3 martxa nagusiak Elitxuko biribilgunetik, Junkal plazatxotik eta Gernikako Arbolatik abiatu ziren arratsaldeko 17:30etan Txanaleta plazarako bidea elkarrekin egiteko. 18:30etan hasi zen Txanaleta plazako ekitaldia eta, euri tanten artean, hautestontziei ongiatorria egin zieten bertan.

"Auzoetan bozkalekuak antolatzeko sortutako lan-taldeen inplikazio handia eskertu nahiko genuke"

Xabier Martinez de Antoñana, Hartu Hitza Irun mugimenduko kidea

Urriaren 27ko ekitaldia sinbolismoz beteriko ekitaldia izan zen eta Irungo Herri Galdeketa antolatzeko prozesua hautestontziei egindako harreraren bitartez irudikatu zuten antolatzailleek. Hortaz gain, martxek Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldeko etorbideak zeharkatu zituzten, Luis Marinon elkartu aurretik. Ibilbidearen bitartez Irungo hiriak hiru probintzia horien topaleku izan dela azpimarratu eta hiriarri erabakitze-prozesuaren bar-



nean merezi duen garrantzia eman zitzaion. Gainera, hautestontziak trenbidetik ekarriz, iraganean eta etorkizunean trenak Irunen izan duen garrantzia ere erakutsi nahi izan zen.

"Bozketaren egunean jai-giroa sortu nahiko genuke"

Xabier Martinez de Antoñana, Hartu Hitza Irun mugimenduko kidea

Erabakitze-unea

Prozesuaren hurrengo data garrantzitsua azaroaren 18an izango da. Xabier Martinez de Antoñanak adierazi duenez, "bozketaren egunean jai-giroa sortu nahiko genuke". Hartu Hitza Irun elkarteko kideak azaldu denez,

Gure Esku Dago plataformak egiten dituen aldarrikapen guztiak jai-girotik bultzatzen saiatzen da. Hala ere, "hauteskunde egun legal bat izango balitz bezalako seriotasuna eman nahiko genioke", gaineratu du Martinez de Antoñanak.

Irungo auzo ezberdinetan kokatuko diren bozketa-lekuez gain, azaroaren 18ko asteburuan San Juan plaza egun horretan antolatuko diren jardunaldien gune-zentrala izango da. Hortaz gain, hiriko beste zenbait auzoetan animazioak antolatuko dira ere, bozketa egunean jai giroa nagusitu dadin.

Bozketa zilegi izateko Hartu Hitza Irun elkarteak 3.000 sinadura bildu behar zituen eta, azkenean, irundar biztanleen babesari esker, muga hori gainditu eta ia 1.000 sinadura gehiago lortu zituzten.

Bozkatze-orduan baldintza batzuk bete beharko dituzte haien iritzia berri eman nahi duten hiritarrek: 16 urtetik gora izatea eta Irunen erroldaturik egotea. Horregatik, bozkatze-unean identifikazio dokumentu bat aurkeztea ezinbestekoa izango da.

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meaka auzoa, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com
www.felixmanso.com

Amaitu da 2019ko aurrekontu parte-hartzaileen prozesua

2019ko aurrekontu parte-hartzaileen emaitzak ezagutzera eman ditu Irungo Udalak. Herritarren parte-hartzea bultzatzeko helburua duten aurrekontuen aurtengo edizioan parte-hartzea %64 handitu da. Finalera iritsitako 20 proposamenen artean, 15 izan dira hiritarren botoen bitartez hautatutako proposamenak.

Guztira 1.419 izan dira 2019ko aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan parte hartu duten irundarrak. Joan den urteko datuekin alderatuta, parte-hartzea era nabarmenean hazi da, izan ere, joan den urtean 864 pertsonak bozkatu zituzten soilik proposamenak. Pedro Alegre Herritarren Partaidetzako ordezkariak azaldu du, "aurrez aurreko saioek eta aurre-bozketak dagoeneko sentsazio onak utziak zituzten, eta interesa eta parte hartzeko gogoia baieztatu egin dira, behin betiko fasean bozka kopuru handia izan baita".

"Parte-hartze handiagoo izateak adierazten du are gehiago sendotu dela Irun Txartela"

Pedro Alegre, Herritarren Partaidetzako ordezkaria

Bozkatzeko unean NANaren ordez Irun Txartela beharrezkoa izan den bigarren urtea izan da honakoa. "Parte-hartze handiagoo izateak adierazten du are gehiago sendotu dela Irun Txartela", azaldu du Pedro Alegrek. Parte-hartzaileen kopurua handitzeaz gain, boto kopuruak ere gora egin du. Aurtengo edizioan 5.422 boto jaso dira eta joan den urtean 1.103 izan ziren. Bozka/ratioa 3,82koa izan da aurten eta bozkatzaileen batz besteko adina 44,4 urteetako izan da, joan den urteko batz besteko adina 3 zifretan murriztuz.

1.300.000 euroko aurrekontua bideratu du udalak 2019 urteko prozesu parte-hartzailean aurkeztutako proposamen garaileak aurrera eramateko. Hautatutako ekimenenak aurrera eramateko 1.240.899 euro beharko dira eta 59.101 euroko soberakina gazteen prozesu parte-hartzaileko proiektuetan aprobetxatuko dira.

Gazteen proposamenentzako tartea

Gazteen aurrekontu-prozesuan 16-30 urte bitarteko 53 pertsonak parte hartu dute. Aurkeztutako proposamenek, berriz, 193 boto jaso dituzte. Gazte-aurrekontuen prozesuan, ordea, aurtengo datuak joan den urtekoekin alderatuta gazte irundarren parte-hartzea era nabarmenean murriztu da, izan ere, 2018 urteko prozesuan 96 gazteek eman zuten haien iritzia. Pedro Alegre, Herritarren Partaidetzako ordezkariak aipatu duenez, datorren urteari begira, gazteen parte hartzea handitzeko lan egitea beharrezkoa izango da, aurtengo prozesuan lortutako datuak hobetu nahi badira.

2019ko aurrekontu parte-hartzaileen emaitzak

	PROPOSAMENA	AURREKONTUA	BOTO KOPURUA
1	Irungo bizikletentzako bide-sarea zabaltzea Hondarribia eta Hendaiara joateko: Hondarribiarekiko konexioa egitea (Puiana-Ospitalea).	100.000 €	735
2	Gaueko segurtasuna hobetzea polizia gehiago jarrita.	114.133 €	659
3	2019 Gizarte Ongizate arloko plantilla handitzea gizarte langile batekin adinekoei arreta ematea sendotzeko.	51.416 €	456
4	Artaleku kiroldegiko instalazio eta zerbitzuak berritzea.	90.000 €	453
5	150.000 erabiltzea hiriko auzo guztietan kultur jarduerak egiteko.	150.000 €	373
6	Katea auzoaren eta Urdanibia-Jaizubiaren artean oinezko bidea eraikitzea.	250.000 €	314
7	Udaletik gauetan elkartzeko eta etxeraino oinez segurtasunez iristeko tokiak ezartzea.	10.000 €	268
8	Kontzertu gehiago musika programazioan.	100.000 €	253
9	Eguzkitza ikastetxeko jolastokia eraldatzea (lorategi gunea eta jolasak berritu eta hobetzea).	150.000 €	251
10	Oñaurreko jostun kaleko plaza ekipatzea (hiri-altzariak, iturria, umeentzako jolastokia).	90.000 €	193
11	Aurrekontua gehitzea animalientzako egun dauden tokiak hobeto mantentzeko.	60.000 €	152
12	Osasun moduluak jartzea San Martzial jaietako Urdanibia plazan: 6 WC eta 3 aska,	17.200 €	137
13	Udalaren zeramika tailerreko ekipamendua berritzea eta gehitzea.	10.000 €	105
14	Urdanibidan Eihera plazako parkea berritzea.	30.000 €	102
15	Berrueta margolaria Pio Baroja kalearekin berrurbanizatzeako proiektua idaztea.	18.150 €	90

Gazte-aurrekontuak

	PROPOSAMENA	AURREKONTUA	BOTO KOPURUA
1	Emantzipaziorako laguntza ekonomikoa: etxebizitza alokatzeko laguntzak.	75.000 €	75
2	Gazte elkarteentzako diru-laguntza gehiago izatea.	20.000 €	26
3	Asia alternatiboko jarduerak asteburuetan.	30.000 €	19
4	Adimen emozionaleko tailerrak gazteentzako.	30.000 €	17
5	Liburutegiko ordutegia zabaltzea igande goizetan.	6.000 €	17
6	Sexu aholkularitzako zerbitzua gazteentzako.	30.000 €	16
7	Jardunaldi teknologikoa (robotika, programazioa, dronak).	8.000 €	15
8	Familia osoarentzako tailer eta jarduerak (pedagogikoak, kulturak, hezkuntzakoak, etab.)	30.000 €	12
9	Denbora libreko monitore eta zuzendariarentzako ikastaroak diruz laguntzea.	27.000 €	9

Hiritarren iritzia aurrekontu parte-hartzaileen prozesua- ren inguruan



Veronica Martin:

Urtero parte hartzen dut aurrekontuen bozketan, nahiz eta gaiak proposatzeko antolatzen diren bileretara joatea ezinezkoa zaidan. Ziur nago Irunen hobetu daitezkeen gauza asko daudela, baina, nire inguruan begiratuz gero, Toki Alaiko autobus geltokia hobetzea beharrezkoa ikusten dut, oraingoa haurrentzat arriskutsua izan daitekeelako.



Julian Sanchez:

Aurrekontu parte-hartzaileen inguruko informazio gutxi dudan arren, San Juan plaza birmoldaketarako aurkeztutako proiektuen bozketan parte hartu nuen. Irunen daukagun bidegorri sarea hobetzea ezinbestekoa iruditzen zait, hiri osoa zeharkatuko luketen bizikletentzako bideak eraikiz. Egun dauzkagun bidegorrien arteko loturak egitea falta da eta hori ez da lurrean marrak margotzearekin konpontzen.



Arantza Alsua:

Joan den urtean aurrekontu parte-hartzaileen bozketan parte hartu nuen arren, aurtengo bozketan ez dut parte hartu. Hala ere, hiritarren partaidetza sustatzeko oso ideia aproposa iruditzen zait udalak urtero martxan jartzen duen prozesu hau eta, proposamen bat egin beharko banu, Irunen sarreran kokaturik dauden baratzeetako etxolen itxura txukuntzea eta eghiago zaintzea gustatuko litzaidake.



Madalena Merino:

Ez dut inoiz honelako bozketaren batean parte hartu, bozketa prozesuaren inguruko ezagutza gutxi dauzkat eta. Irun ondo dagoela uste dut, nahiz eta egia den hobetu daitezkeen gauza txikiak daudela beti. Askok gustatzen zait gauzak apurtzen direnean, udal zerbitzuak abisatu eta beharrela etortzen direla. Hori horrela izaten jarraitzea nahiko nuke.



Jorge Gonzalez:

Prozesu honen inguruko zerbait entzun dut eta bertan parte hartu duen jendea ezagutzen dudan arren, nik ez dut inoiz proposamenik bozkatu. Irun hobetzeko gauza asko behar direla uste dut. Aparkaleku kopurua handitzea beharrezkoa ikusten dut, txakurrentzako ongi egokitutako parke berriak eraiki eta egun dauzkagunak egokitzeaz gain.

Txema Martinez:

Aurrekontu parte-hartzailetan bozketan parte hartu izan dut noizbait. Irungo errepideak eta azpiegiturak asko hobetu behar direla iruditzen zait, hiriaren barneko funtzionamendua egokia izan dadin. N-1 errepidea banaketa beharrezkoa ikusten dut Behobian sortzen diren autopilaketak saihesteko.

Irungo alardeek “Euskaraldia” ekimenean parte hartuko dute

Argazkia: Estudio Gover



Paco Carrillo, Alarde Tradizionaleko jenerala:

Nola definituko zenuke euskarekin duzun harremana?

Euskararekin gertuko harremana izan dut, nire ama jaiotzez ataundarra delako, nahiz eta aita Gaztelakoa den. Ni Irunen jaio naiz, baina, zoritxarrez, euskara nahiko galdua daukat. Hala ere, ulertzeko gai naiz eta ahal dudan guztietan erabiltzen saiatzen naiz.

Egunerokotasunean asko erabiltzen duzun hizkuntza da?

Orain Debako banku batean lanean ari naiz zuzendari bezala eta, herri euskaldun petoa denez, bezeroekin egunero erabiltzen dut.

Nola ikusten duzu euskararen egoera Irunen?

Irunen erdaraz ibiltzeko ohitura gehiegi dugula uste dut, nahiz eta euskaraz hitz egiten dakigun.

Zer egin beharko litzateke egoera hau hobetzeko?

Erabiltzea, etengabe erabiltzea. Lotsak alde batera utzi eta, nahiz eta akatsak egin, erabiltzeko ahalegina egitea.

Irungo egoerarentzat “Euskaraldia” lagungarria izango dela uste duzu?

Bai, noski. Hori eta Irunen euskararen erabilera bultzatzeko asmoa duten kanpaina indartsu guztiak beharrezkoak ikusten ditut, aspertu eta jendea euskara hitz egiten hasi arte.

Alardearen eta euskararen artean loturarik dago?

Bai, jende aurreko ekitaldietan herrian dauzkagun bi hizkuntzak erabiltzen saiatzen gara beti. Hortaz gain, sare sozialak, webgunean eta ordenantzak ere euskaraz kudeatzen saiatzen gara.

Argazkia: Safi



Inma Landa, Alarde Publikoko jenerala:

Nola definituko zenuke euskarekin duzun harremana?

Euskararekin lan egiten dut. Irakaslea naiz eta Txingudi Ikastolan lan egiten dut, beraz, nire lanbidea da. Ikasle erdaldunak euskalduntzea da gehien gustatzen zaidana.

Egunerokotasunean asko erabiltzen duzun hizkuntza da?

Bai, gehien erabiltzen dudana hizkuntza da. Lanean denek euskaraz egiten dugu, familiarekin ere eta lagun gehienak euskaldunak ditut.

Nola ikusten duzu euskararen egoera Irunen?

Oso makala. Kanean oso gutxi entzuten da eta penagarria da jende asko euskalduna izanda gazteleraz aritzea. Ikastolan egoera hori argi eta garbi ikusten dugu.

Zer egin beharko litzateke egoera hau hobetzeko?

Ez dakit non egon daitekeen gakoa. Nik uste egin dezakegun gauza bakarra euskaldunok garenok, gutxienez, lehen hitza euskaraz egitea da.

Irungo egoerarentzat “Euskaraldia” lagungarria izango dela uste duzu?

Nire ustez oso beharrezkoa da, horri buruz pentsatzeko tarte hartu eta euskaldun zahar askori zer pentsatua emango diela uste dut.

Alardearen eta euskararen artean loturarik dago?

Agintarien juntan gauden guztiak euskaldunak garenaz, bilera guztiak euskaraz egiten ditugu. Hortaz gain, jeneral bezala prentsarekin lan egin dudanean, euskarazko prentsa hurbildu zait eta elkarrizketak euskaraz egiten ditut.

Ficobako gaurik beldurgarriena

XV. Beldur Pasabidea antolatu zuten urriaren 27an Santiagoko Deabruak elkarteko kideek

Urriaren 27an Santiagoko Deabruak elkarteko kideek Beldur Pasabidea antolatu zuten Ficobako eremuan. Purga pelikula izan zen aurtengo pasabidearen ardatza. Gainera, nobedade gisa, pasabideko ibilbidea osatzen duten gune ezberdinek giro-soinu propioak izan zituzten, aktore amateurren lanarekin batera, izua pabilioian zehar zabaltzeko.



Beldur Pasabidearen 15. edizioan 28 aktorek parte hartu zuten Ficobako gaurik beldurgarrienean Purga pelikularen eszenak birsortzeko. Hala ere, urte batetik bestera, hautatutako gaiaren arabera beharrezkoak diren pertsonai kopurua aldatu ohi da. Jose Mari Clementek, Bidasako Deabruak elkarteko presidentea adierazi du, "jendea pasabidean sartzen denean gertatzen ari dena benetakoa dela pentsatzea da gure helburu nagusia".

Aurtengo nobedade nagusia pasabideko agertoki ezberdinek giro-soinu propioak izan dituztela da, pasabidean zehar errealismo sentazioa areagotzeko. Hortaz gain, urte askoan sarreren prezioa mantendu den arren, aurtengo bisitariek hiru euro ordaindu dituzte, sarrera euro bat igo baita. "Hiru ordu eta erditan 2.000 bisita inguru jasotzen ditugu". Paseak 15 minutuko tartearekin banatzen dira, ilarak saihestu eta bisitariek izuarekin daukaten hitzordura berandu iritsi ez daitezela.

Ezkatuko lana

Ikuskizuna antolatzeko hiru hilabete lehenago hasten dira Santiagoko Deabruak elkarteko kideak prestaketak lanekin. Lehen zeregina Beldur Pasabidearen gaia zehaz-

"Jendea pasabidean sartzen denean gertatzen ari dena benetakoa dela pentsatzea da gure helburu nagusia"

"Hiru ordu eta erditan 2.000 bisita inguru jasotzen ditugu"

Jose Mari Clemente, Santiagoko Deabruak elkarteko presidentea

tea da eta, elkarteko presidentek adierazi duenez, azken urteetan ardatz bezala monografiko bat hautatu ohi dute. Hortik aurrera, makillajea, mozorroak, dekoratuak, garrarioa, segurtasuna, argiztapena, efektu bereziak eta bestelako prestaketak koordinatu eta gauzak finkatzeko prozesua ekiten diote. Urteetik urtera, hautatutako gaiaren arabera beharrezko materialak aldatzen dira. Azken urteetan maskaren erabilera murrizten saiatu diren arren, aktoreen %30ak maskarak erabili zituzten aurtengo ikuskizunean, izan ere, Purga pelikulan maskarek garrantzi handi dute eta.

Izuaren leku-aldaketa

Duela 15 urte PortAventura jolas-parkeko "La selva del miedo" ikuskizuna bisitatu ostean sortu zen Irunen Beldur Pasabidea egiteko ideia. Lehen urte haietan pasabidea Dumboako bidegorrian egiten zen eta Jose Mari Clementek adierazi duenez, inguruan zeuzkaten ibai edo etxolak dekoratu moduan erabiltzen zituzten. Hala ere, eguraldi txarrak arazo gehiegi sortzen zituela ikusita, hortik aurrera Beldur Pasabidea Ficobako pabilioietako batean antolatzea erabaki zen, etorkizunean ikuskizuna eguraldiarengatik baldintzaturik egon ez zedin.



San Marcial Kirol Klubak indartsu ekin dio bere lehen denboraldiari



Ekaineko hilabetearen inguruan guraso eta esperientziadun entrenatzaile talde bat elkartu zen hirian kirol klub berria sortzeko asmoarekin. Taldearen izena argi izan gabe, 20 pertsoenez osaturiko lan-taldea martxan jarri zen kirol proiektu berria aurrera eramateko asmoz. Jokalarien zaletasuna entrenatzaileen esperientziarekin elkartuz, futbolaren diziplina eta adiskidetasunaz gozatzeko aukera eskaini nahi zaie hiriko gazteei.

Eva Otazo klubeko lehendakariordeak "abentura" moduan gogoratzen ditu klubaren sorrerarako lanean emandako udarako hilabeteak. Lehendakaria ordeak azaldu duenez, oso lagungarria izan da futbolaren munduan esperientziadun jendea alboan edukitzea proiektua aurrera eramateko. Hala ere, lehen urratsak udarako hilabeteetan ematea konplikatu izan zen, oporren ondorioz, prozesua motelagoa izan zelako, baina, kluba garaiz iritsi da denboraldi berria jolasteko.

Kluba martxan egongo den lehen urtea izan arren, 196 jokalarik jantziko dute San Marcial Kirol Klubaren kamiseta laranja

eta urdina denboraldi honetan. Guztira, federatuen mailan, klubak 6 talde dauzka, jokalarien adinaren arabera kategoria ezberdinetan banatzen direnak. Hortaz gain, etxeko txikiek San Marcial klubaren eskolaren barnean dute futbolera jolasten ikasteko lehen aukera. Eva Otazo klubeko lehendakariordeak azaldu duenez, "klubean edozeinentzako lekua dago: bai futbolera jolastu nahi dutenentzat, zein proiektuan laguntzeko asmoa dutenentzat".

Klubarentzako lehen denboraldia izan arren, orain arte jokatutako partiduetan, orokorrean, emaitza onak lortu dituzte San Marcial klubeko taldeek. Denboraldia prestatzeko, jokalariek aurre-denboraldian korrika asko egin behar izan dutela azaldu du lehendakariordeak, entrenamenduetarako zelaia banatu arte. Helburuei dagokionez, emaitzak alde batera utzita, gauzak ondo egin eta funtzionamendura egokitzeko urtea dela adierazi du Eva Otazok. "Lortu dezakegun garaipen handiena datorren urtean jokalariek gure klubean jarraitu nahi izatea da", gaineratu du lehendakariordeak.

"Klubean edozeinentzako lekua dago: bai futbolera jolastu nahi dutenentzat, zein proiektuan laguntzeko asmoa dutenentzat"

"Lortu dezakegun garaipen handiena datorren urtean jokalariek gure klubean jarraitu nahi izatea da"

Eva Otazo, San Marcial Klubeko lehendakariordea

Iraganarekiko fideltasuna

Klub berria izan arren, egia da iraganean Irune San Marcial izeneko beste talde bat existitu zela. Egungo klubaren zuzendaritzak azaldu duenez, ez dute inolako zerikusirik iraganeko taldearekin. Izena erabakitzeko orduan, inskripzioa egiteko unean izena libre egotea, baina, era berean, hiriarekin lotura estua edukiko zuen izena izatea bilatzen zuten klubaren zuzendaritzako kideek.

Iraganeko klubarekin zerikusi zuzenik ez duten arren, omenaldi moduan, klubetarako ekipamendua sortzeko orduan antzinako klubak erabiltzen zituen kolore berdinak erabiltzea erabaki zen: laranja eta urdina. Koloreei dagokienez, "partiduei begira, koloreen bitartez hiriko gaitzatzeko klubetatik erraz bereiztea garrantzitsua da ere", azaldu du Eva Otazo, klubeko lehendakariordeak.

Alazne Cienfuegos, Behobia-Donostia lasterketako parte-hartzailea:

“Nire helburu nagusia korrika noanean karreraz gozatzea da”



Ezkerretik eskuinera, senarra (Mikel Zapirain), Alazne Cienfuegos, aita (Higinio Cienfuegos), ahizpa (Iratxe Cienfuegos) eta familiko lagun bat (Aitor Martínez).

Alazne Cienfuegosek 47. Behobia-Donostia lasterketan parte hartu zuen lehen aldiz. Hortik aurrera, eta ama izan ostean, aita, ahizpa, senar eta lagunekin korrika eginez edo laguntzaile bezala aritu da lasterketan. Azaroaren 11ean laugarren urtez egingo du Alaznek Behobiatik Donostiarako bidea, oraingoan, Iratxe ahizparen konpainiarekin.

Nolakoa izan zen Behobia-Donostia lasterketan zure lehen parte-hartzea?

Oso esperientzia polita. Ohiko korrikalari izan gabe, baina, behar bezala prestatuta egonda egin daitezkeen lasterketen artean, Behobia-Donostia lasterketa popular politena dela esango nuke.

Laguntzaile bezala era ezberdinean bizitzen da lasterketa?

Laguntzaile moduan aritu nintzenezan Ibon Runers Time taldearen barnean nengoen jada eta bertan ikasitakoa eta lortutako esperientzia oso lagungarria izan zitzaidan korrikalariei nola lagundu behar nien jakiteko. Hala ere, batzuetan kanpotik barrutik baino gehiago sufritzen da.

Bizipen bereziren bat izan duzun urterik gogoratzen duzu?

Ez berezirik, urte bakoitza berezia baita. Seme-alabak eduki ostean eta berriro ere distantzia horretan korrika egiten hasten zarenean oso hunkigarria da. Nire helburu nagusia korrika noanean karreraz gozatzea da.

“Batzuetan kanpotik barrutik baino gehiago sufritzen da”

“Ez dago Behobia-Donostia bezalako animoa duen lasterketarik”

Gogor entrenatu behar da horrelako lasterketa bat prestatzeko?

Gogorra baino, entrenamendua konstantea izan behar da. Irailean entrenatzen hasi eta lasterketa amaitzea po-

siblea da, baina, fisikoaren mesederako, periodikotasun baten barnean entrenatzea egokiagoa da.

Zein da lasterketako unerik politena zuretzat?

Irundarra naizenez eta lasterketa nire auzotik pasatzen denez, bertan senideak ikusten ditudanean oso une polita da. Hala ere, Pasaiaiko portuan lan egiten dut nik eta inguruan lankideak animatzen ikustea oso pozgarria da ere.

Eta unerik gogorrena?

Donostian Miracruz gaineko aldapa igotzea. Bukaezina suerta daiteke aldapa hori. Gaintzurizketa igotzea, berriz, errazagoa iruditzen zait kilometro hori irteeratik gertuago dagoenez, freskoago zaudelako.

Zer sentitzen da Donostiako helmuga zapaltzerakoan?

Emozio handia, baina, baita bide osoan zehar ere. Ez dago Behobia-Donostia lasterketa bezalako animoa duen beste probarik. Lasterka zoazela ezinezko da gelditzea, ia tarte guztietan animatzen zaituen jendea dagoelako. Pixkanaka kilometroak antzean uzten zoaz eta, konturatzerako, helmuga begien aurrean daukazu.

Neumáticos
txepetxa



NEUMATIKOEN SALMENTAN LIDERRAK,
AUTO SALMENTAN ETA AUTOEN KONPONKETETAN LIDERRAK

info@txepetxa.com • Letxunborro Hiribidea, 92, Irun • 943 63 13 99



ONE LANGUAGE, THOUSANDS OF STORIES

HIZKUNTZA BAT, MILAKA ISTORIO



Ainara Maia Urroz

DRIM film laburren jaialdia xumea eta berria da, baina kultura zinematografikoa sustatzea izan du helburu Strugako zinema-jaialdi gazte honek bigarren urte honetan, Mazedoniako hego-mendebaldeko hiri honetan.

DRIM ibaiak poetikoki bustitzen ditu Strugako karririkak, eta Ohrid-eko lakuan egunsentietan nahiz ilunsentietan fresko jotzen du haizeak, baita eguzkiak azala laztandu ere. Poeton zubitik igaro naiz, eta AMETS egiteko aukera izan dut; poeton parke batera iritsi naiz, non hiriko kultur etxea dagoen. Han izan da iragan asteburuan film laburren jaialdia, eta abandonatutako tokien argazkien erakusketa batek harrera egingen digu, baita erakusketa horren egileak azalpenak eman ere, Goran Ristovskik. Abandonatutako gauzek amets egitera bultzatzen naute eta mundu hobeago bat irudikatu.

Antolakuntza xumea eta horizontala du zinema-jaialdi gazte honek, baina hirian kultura sustatzeko asmoa ere bai. AMETSAREN ETA POESIAREN HIRIAN nago, neure saltsan,

poesia idazten. Bizitza amets hutsa izateaz gain, bizitza poesia da, eta nazioarteko istorio labur zinematografikoek amets egitera bultzatu naute.

Balkanetako hainbat film labur ikusteko aukera izan dut, hala nola Serbiako, Albaniako, Kroaziako eta Mazedoniako filmak. Hainbat hizkuntza eslabiar entzun ditut, ingelesezko azpitutuluekin, baina hizkuntza bakarraren magiak liluratu nau beste behin: zinemaren hizkuntzak.

Zinemaren hizkuntza bakarrak hitz egin du Strugako Drim Film Laburren jaialdian, hamaika istorio kontatzeko, muga eta erlijio guztien gainetik; izan ere, muga eta erlijioen bitartez Balkanetako kulturaz busti naiz, eta niretzat ezusteko atsegina izan da zinema-jaialdi txiki honen berri jakitea, eta biziki eta bihotzez eskertzen dut antolatzaileen harrera beroa. Muga guztien gainetik euskal gizarteari helarazi nahi diot zinemaldi gazte ez-antibizotsu honen berri, eta beharbada elkarlana bultzatu.

Igorin gaineko trikuharriak ezagutzeko ibilaldia

GORKA MARTINEZ

unpaisenmimochila.blogspot.com

Denbora: 3 ordu (geldialdirik gabe).

Gailurra: Igorin (459 m).

Zailtasun-maila: Erraza.



Ibilbide laburra, desnibel gutxikoa eta ondo seinalezatua. Ibilbidea Hernaniko Epele auzoan abiatzean da, autoa auzoko aparkaleku batean utzi ostean. PR-Gi 1002ko marka zuri horiak jarraituz basoan murgilduko gara ibaiaren alboko bidezidorrak jarraituz. Aldapa igo ostean, Igoineko muinora iritsiko gara (1:00), horren ostean, Igorineko gainera (459m) joan-etorriko ibilbidea egiteko.

Jaitsierako ibilbidean Igoin mendixkako trikuharriak bisitatzeko atsedenaldea egingo dugu. Igoingo lepoa I eta Igoingo lepoa II izeneko trikuharriak ikusi ahalko ditugu bertan. Ibilbidearekin jarraituko dugu Arritxueta (373m) gaina igaro arte. Arritxueta eta Akolako lepoa II trikuharriak ikusi ostean, ibilbideko azken aldapa igoko dugu Akolako gainera igotzeko (2:00).

Ibilbidearekin jarraituz hobekien kontserbaturiko trikuharria ikusteko aukera izango dugu: Sagastietako lepoa trikuharria. Ibilbide biribilarekin amaitzeko, behera doan bidexka hartuko dugu eta, aurrera egin ahala, zementuzko pista eroso batek hasierako puntura eramango gaitu.



Elatzeta - LH1

IGARKIZUNAK

Aurrean punta bi, atzean zulo bi, zer da? _____ (guraizak)

Gone lusa du, mihia mota, urrutitiki entzuten da heren kantu hotza. Zer da? _____ (karpala)

ANOKORAPILAK

Sei bisa hozakia zineti songipak eguziak,
Sei bisa barinka zineti basotik ekarriak.

Ris-nar-nis-nar papetak urratzen has.
Ris-nar-nis-nar papetantzia doaz.

2. maila

Denborapasak

Gipuzkoako zazpi herri

Q	W	Q	E	T	U	A	L	E	O	V	S	U	X	Z	I	Z
K	B	D	R	E	D	O	E	A	E	H	Y	C	E	C	C	W
J	B	O	B	I	N	E	Z	I	L	E	V	C	Y	I	U	U
W	U	A	E	H	O	N	O	H	S	F	H	U	X	G	A	R
U	H	O	N	D	A	R	R	I	B	I	A	U	D	A	Q	M
H	D	H	Y	W	G	O	I	E	X	U	I	R	U	N	V	U
M	A	E	A	A	A	I	Q	Z	E	O	Q	X	D	I	V	S
C	P	M	B	C	T	E	I	Z	F	H	U	U	I	R	A	J
O	L	S	I	A	O	G	U	O	Y	D	G	I	E	Y	D	S
I	Y	I	E	Z	L	I	E	H	F	O	O	U	Z	A	Y	J
U	G	H	D	U	O	A	J	L	B	M	E	T	E	I	L	Z
H	X	Z	W	M	S	H	V	I	F	I	U	P	X	F	K	X
F	P	N	H	A	A	O	Y	Y	D	X	L	B	T	D	Z	O
Y	C	I	A	I	Q	A	B	L	L	E	W	U	E	Z	K	H
Y	O	Z	F	A	Z	K	F	D	K	K	H	L	B	E	W	W
N	L	P	A	A	X	N	T	O	O	A	D	M	U	U	H	U
A	R	R	A	S	A	T	E	J	O	V	B	E	I	Q	L	K

		4				3		6
					2	4	5	
		9		4		7		
3	5		7		6			2
		6	5				3	
	4		8					
			4		3	5		8
		8	6		5			
4	7			8		6		3

Irun, Hondarribia, Lezo, Deba, Zumaia, Arrasate eta Tolosa

IRUNABAR
IRUNGEO BERTSOAREN BILGULINEA



Hegazti Migratzaileak

Egilea: Egoitz Zelaia
Doinua: Abadiño San Blasetan

- | | |
|--|--|
| <p>1. Dortoka baten antzera (bis)
etxea bizkar gainera
abiatu zinen ezin
begiratuaz atzera.
Begiratuaz atzera
dortoka baten antzera.</p> <p>2. Daukazu guztiarekin (bis)
bide bortitz bati ekin.
Harrapariak ezin du
zure alde aurka egin.
Zure aurka alde egin
daukazu guztiarekin.</p> <p>3. Izanen zinen etxean (bis)
nola hontza gau beltzean
gure bonbek zuen lurra
odolez hustu ezean.
Odolez hustu ezean
izanen zinen etxean.</p> <p>4. Intxaur-oskola batean (bis)
lapurtxorien artean
biluzik utzi zintugun
itsasoaren atean.
Itsasoaren atean
intxaur-oskola batean.</p> <p>5. Bota zintuen lurrera (bis)
nola hormak primadera.
Aterpe baten eskean
erdu zinen egarbera.
Erdu zinen egarbera
bota zintuen lurrera.</p> <p>6. Azeria datza lotan (bis)
zurekin amestekotan.
Deskantsatu izan duzu
sarri satorren zulotan.
Sarri satorren zulotan
azeria datza lotan.</p> | <p>7. Suge pozoitsua mintzo
(bis)
denean men egin zintzo.
Askatasuna, polizi
zuri artean, zuri so.
Zubi artean zuri so
suge pozoitsua mintzo.</p> <p>8. Beste aldera begira (bis)
zakurra zaunka ari da.
Ikusezinak direnez
desagertuko ahal dira!
Desagertuko al dira
beste aldera begira?</p> <p>9. Hegazti migratzailea (bis)
ihesbide egilea.
Bake bila dabilena
zergatik da gaizkilea?
Zergatik da gaizkilea
hegazti migratzailea?</p> <p>10. Agintari alaena (bis)
barrez dabilen hiena!
Haiek badira arazo
ez al zara zu problema?
Ez al zara zu problema
agintari alaena?</p> <p>11. Iristeko ilargira (bis)
begirada bat aski da.
Eskubideak lortzeko
zenbat urrats behar dira?
Zenbat urrats behar dira
iristeko ilargira?</p> <p>12. Sentitu zure etxean. (bis)
Nola sorgina leizean
itsaso ertzean edo
gure malkoen ertzean.
Gure malkoen ertzean
sentitu zure etxean.</p> |
|--|--|

San Vicente de Paul DBH1



Irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarrizketa.

- Zenbat hezur dauzka zure gorputzak ?
- 208, Jauna - erantzun du ikasleak.
- Burugogorra! Ez al nizun esan atzo 207 hezur bakarrik dauzkala giza gorputzak?
- Bai, baina ... gaur oliba hezur bat irentsi dut.

Haur batek dio amari ikastolatik etxera joandakoan:

- Ama, bi notizia dakartzat zuretzat. Lehenengoa oso ona da: matematikan 10 atera dut.
- Oso ongi, oso ongi
- Eta zein da bigarren notizia? -galdetzen dio amak.
- Ba, lehenengo notizia gezurra dela.

Bittor negarrez eskolatik dator eta amak galdetu dio :

- Zer duzu Bittor, horrenbeste negar egiteko?
- Anderenok zigortu egin nau ...
- Hara! Eta zergatik zigortu zaitu?
- Bere galderari erantzuteagatik.
- Gaizki erantzun diozu, noski ...
- Ez, ez. Nik ondo erantzun diot ... Zeinek sartu duen sagua bere poltsan galdetu du eta nik izan naizela erantzun diot.



bideosare

Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



Miriam Loidi, artista irundarra:

“Media garbitzeaz gain, bildutakoarekin gauza berriak sor daitezkeela erakutsi nahi izan dut”



Azaroaren 4ra arte ikusgai egongo da Irungo Martindozenea Gaztelekuan Miriam Loidi artistaren erakusketa. “Jaizkibel bidea eginez” izenburuaren barnean liho bitartez sortutako gofratuak eta laten bidez egindako estanpak biltzen ditu erakusketa. Jaizkibel mendiko zabor bilketa prozesu parte-hartzaile baten bitartez gauzatu zen eta 31 pertsonen parte hartu zuten bertan. Gainera, erakusketaren inaugurazio egunean gazteei zuzenduriko tailer bat antolatu zen ere.

Nola lortu zenuen gazte-lekuan erakusketa egiteko aukera?

Gaztelekuko arduradunekin harremanetan jarri nintzen nire lana erakusteko interesa nuelako eta haiek lagundu zidaten erakusketa antolatzeko prozesua aurrera eramaten. Hasiera batean erakusketa udara hasieran egitea adostu genuen, baina, arazo batzuegatik, inaugurazio data atzeratu behar izan genuen.

Nolako izan da esperientzia?

Oso esperientzia polita izan da eta zalantzarik gabe errepikatuko nuke. Gaztelekuan egindako harrera onaz gain, gazteei nire lana erakusteko aukera izan dut erakusketa honi esker eta jasotako erantzuna positiboa izan da.

Zer nolako obrak ikus daitezke erakusketan?

Serie desberdinak daude. Alde batetik, linoleozko mapen

“Etorkizunean ingurumenaren gaia lantzen jarraitzea gustatuko litzaidake”

“Oso esperientzia polita izan da eta zalantzarik gabe errepikatuko nuke”

bitartez mendia garbitzen egindako bideak irudikatu nahi izan dut. Bestetik, bildutako zaborren artean, berriez, lata zapatuak erabili ditut estanpak sortzeko.

Erraza izan da material mota horrekin lan egitea?

Ez egia esan, material gehiena zahartuta eta zikina zegoelako. Ironikoa diruen arren, zaborra garbitu eta materiala aukeratzen denbora asko eman behar izan dut. Horren ostean, zaborrarekin frogatzea ezberdinak egin behar izan ditut, esperotako emaitza lortu dudana arte.

Zein izan da erakusketa honen bitartez transmititu nahi izan duzun mezua?

Proiektu honek bi helburu nagusi dauzka. Batetik, jendeak mendia gehiago ezagutzeko eta, bestetik, mendia garbitzearekin batera, bildutako zaborra eraldatuz zerbait berria sortzeko gai garela jendearekin erakustea. Biga-

rren helburu hori lantzeko gaztelekuko gazteekin egindako tailerra oso interesgarria izan zen.

Zein izan da emaitzaren inguruan jaso duzun balorazioa?

Hasieran senideak eta jende ezaguna hurbildu zen batez ere erakusketara. Hala ere, zabor bilketan parte hartu zuen jende asko sortutako lanarekin poztasuna erakutsi dit, prozesuaren parte sentitu direlako. Orain kanpoan ikasten ari naizenez Irunen egotea gustatuko litzaidake, erakusketa interesa erakusten dutenekin bisitatzeko.

Zeintzuk izango dira zure hurrengo proiektuak?

Etorkizunean ingurumenaren gaia lantzen jarraitzea gustatuko litzaidake. Hortaz gain, bidaiarekin loturiko beste proiektu bat daukat buruan, bidaiak egiterako orduan jendearen motibazioak eta esperientziak ezagutzera emateko.



Fernando Vergara
argazkilaria

Letxunborro hiribidea 100,2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484

www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com





- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Web gunean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Gipuzkoan- Gazte Tour jaialdia Irunen izango da aza- roaren 3an

12-15 urte bitarteko gazteei zuzendutako kultur-programazioa eskaintzeko helburua duen jaialdia da, gazteak ekitaldiaren parte sentitu daitezuten. Jaialdia Ficoban egingo da, atetik 16:30etan irekiko dira eta sarrerak 3 euroko prezioa izango du. Gaurkotasan handiko proposamenak biltzen dituen jaialdia da, egitaraua osatzeko Gipuzkoako gazteen iritzia kontutan hartu baita sare sozialen bitartez.

17:00 Green Night: GreenDay taldearen abestiak bertsionatzen dituen talde irundarraren kontzertua.

18:00 Maren: La Voz Kids programan parte hartu zuen 15 urteko neska bizkaitarraren kontzertua. Bere azken LPa aurkeztuko du: "Alguien sin vergüenza", berak idatzitako bost kanturkin.

18:45 Around The Corner set DJ: Paula Baena eta Giovanna Bravar Youtuber eta Influencerrak. Gipuzkoa Gazte Tourrean parte hartuko duten artistak aurkezteaz gain, azoka solidario bat egingo dute haien objektu pertsonalekin, ekitaldiaren amaieran irabaziak dohaintzan emateko.

20:15-22:00 DJ Markelin Show: Markelin izenez ezaguna den iparraldeko DJ honek konfeti-kanoi, opari, argazkilari, bideogile, animatzaile eta bestelako sorpresekin amaiera emango dio ekitaldiari.

Abian da Beldur Barik lehiaketa



"Beldur Barik jarrera partekatua" leloa jarraituz antolatu da lehiaketa honen 9. edizioa. Lehiaketaren xedea emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerei aurre egiten dioten neska-mutilen arte-adierazpen mota oro onartzea, baloratzea eta bultzatzea da.

Parte-hartzaileak: 12-26 urte bitarteko gazteek hartu dezakete parte, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi edo ikasten dutenak.

Lana aurkezteko euskarriak: Edozein adierazpen artistiko onartuko da, baldin eta ikus-entzunezko euskarriari aurkezten bada.

Lan kopurua: Pertsona eta talde bakoitzeko, gehienez, 3 proiektu aurkeztu daitezke.

Epeak: Lanak aurkezteko epea 2018ko irailaren 24an irekiko da goizeko 09:00etan, eta 2018ko azaroaren 9an itxiko da gaueko 24:00etan.

Balorazio irizpideak: mezuak adierazteko originaltasuna eta aurkeztutako irtenbidearen ikuspegia eta tonua kontutan hartuko dira. Euskara eta azpitituluen erabilera ere positiboki baloratuko da.

Informazio gehiago:
<http://beldurbarik.org/eu> webgunean.

Nazioarteko Mugikortasun Zerbitzuaren ordutegi aldaketa

Europar ikasi, praktikak egin edo boluntariotza egiteko al-hokularitza eta elkartrukeak eskaintzen dituen zerbitzuak ordutegia aldatu du.

Ordutegi berria:

-Astelehen eta asteazkenetan 17:00etatik 19:30etara.

-Ostiraletan 11:00etatik 13:30etara.

Lekua: Zerbitzua toki berdinean mantentzen da, CBA liburutegiko Igazte bulegoan.

Helbide elektronikoa: ieurope@irun.org.

Telefono zenbakia: 943 505 446.





MOLDATU HOME: ZURE ETXEBIZITZA SALTZEKO MODU BERRIA
Etxe bikoitza desberdina da, kontatu lezaguazu nolako den zuri!

Higiezinen zerbitzuen kontzeptu berri bat surkatzeko d-
zuegi, etxebizitzaren etorkizun oraindik dagoena
erakazten surkatzeko Foterena egiteko.

BIZI EKIAK saldu nahiz chugu, ez soilik metro korantak.

Inmobiliarie Urtzi Golegana eta Encarni Martinez Home
Staging enpresak elkarrekin gara, gure emakumeak, espe-
rientziak eta gehien bal, gauzak ondo egiteko gogoa uz-
teraz, etxebizitzaren salmenta / alokatua zerbitzu migra-
za eskaintzeko Home Staging teknikan. Etxebizitzak
saltzeko modu eraginkorago batekin, emaitzen aza-
kar jartzen gaitzake.

<https://www.inmobiliariartzigolegana.com/>




661875785
(Urtzi)

656748202
(Encarni)

Inongo kasuaren aldetik human aurki gaitzakeu,
Jose Ramon Agirretxe Alkate Jauna 1 plazan.

<https://encamimartinez.es/>

Azaroak

4

Babarrun-jate eguna

Zer: Babarrun-jate eguna ospatuko du Irungo Medizaleak elkarteak Etxalarreko La Basque jatetxean, Etxalar Benaiztatik irten eta Etxalar herrirako bidea egin ostean.

Irteera ordua: 7:30etan irtengo da autobusa Bixeratik.

Prezioa: 33 euro (autobusa eta bazkaria barne).

Ticket salmenta: Irungo Mendizaleak elkartearen (Larretxipi, 13).

6

Hitzaldia "Nola hitz egin drogen inguruan gure seme-alabekin"

Zer: Irungo Udaleko Gizarte Ongizateko Departamentuak nerabeak dauzkaten gurasoentzat antolatutako drogen inguruko hitzaldia.

Non: Amaia Kultur Zentroko hitzaldi aretoan.

Ordua: 18:30etan.

Prezioa: Sarrera librea.

Oharra: Ai Laket! Elkarteko bi adituk gidatuko dute hitzaldia

9

Zinema: "Fiz. Puro maratón"

GZer: Atletismoko Nazioarteko Zinemaldiaren barruan "Fiz. Puro maratón" pelikularen proiektzioa.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Oharra: Filmaren aurkezpena eta solasaldia Martín Fiz atletarekin eta Alex Calabuig kazetariarekin.

Informazio gehiago: www.ficafestival.com webgunean.

10

"Irun, Historia Erraldoia" ikuskizuna

Zer: Ondare Kultur Elkartearen 6 erraldoi berrien aurkezpena, Irungo historian oinarritutako ikuskizunean.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

11

Kalakan eta Nayade Abesbatzen kontzertua

Zer: Iparraldeko Kalakan taldearen emanaldia ahots zuriko Nayade Abesbatzen lagunduta.

Non: Junkal Parrokian.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Sarrera librea.

11ra arte

"Oroimenaren argia" margo erakusketa

Zer: Xabier Arribas Molinero artista irundarraren 70 obra ikusteko aukera.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordutegia: Asteartetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 11:30etatik 13:30etara.

Sarrera: Doakoa.

Bisita gidatuak: Artistak bisita gidatuak egingo ditu igandeetan 12:00etatik 13:00etara bere lana azaltzeko.

Oharra: Astelehenetan eta azaroaren 1ean erakusketa itxita egongo da.

Denborapasen emaitzak

QWGETUATECOVSUXZIZ
 KBDREDOEAEHYCECCW
 JBOBINEZILEVGYIUU
 WUAEHONQHSPHUXGAR
 UHONDARRETTAUDAQM
 HDHYWGOIEXUTRUVU
 MAEAAAIGZEDQXDIVS
 CPMBCOTEIZFHUUIRAJ
 OLSIAOQUOYDGI EYDS
 IYIEZLIEHFDQUZAYJ
 UGHDUQAJLBMETEILZ
 HXZWM SHVIFIUYPFKX
 FPNHAAOYYDXMLBTDZO
 YGIAIQABLLEWUEZKH
 YOZFAZKFKKHLBEWW
 NLPAAAXNTOCADMUUHU
 VRRASATBJOVBEOLK

1	2	4	9	5	7	3	8	6
7	8	3	1	6	2	4	5	9
5	6	9	3	4	11	7	2	1
3	5	1	7	9	6	8	4	2
8	9	8	5	2	4	1	3	7
2	4	7	8	3	1	9	6	5
0	1	2	4	7	3	5	0	8
9	3	8	6	1	5	2	7	4
4	7	5	2	8	9	6	1	3

Folder

Paper-dendarik merkeena
ZIURTATUTA

Kolon ibilbidea, 2
 (atzeko alde)

www.kopiar.net
 kopiar@kopiar.net
 943 63 93 01

20

ETXEBIZITZA

**LASTER
ERAIKIKO DIRA
AUKERA
EZIN HOBEA**



Irun erdi-erdian, anbulatorioaren eta Artaleku kiroldegiaren artean, Luis Mariano Plazaren ondoan.

3 LOGELAKO 20 ETXEBIZITZA KOSTU-PREZIOAN KOOPERATIBA-ERREGIMENEAN, garaje, trasteleku eta guztiz ekipatutako sukaldeekin.

Baxu eta atikoek terraza zabal-zabalak dituzte.

GESTIOA, INFORMAZIOA ETA SALMENTA:



Plaza Luis Mariano, S/N • IRUN (Gipuzkoa)

663 904 680

www.artalekubizigunea.com

FINANTZIAZIOA:

